

Maritxu Loiola

Urigoitiarrak  
Real-Athletic  
derbiaren atarian

KilibARREN

BERBETAN

Iban Esnaola  
abokatua

ULTURÆ

len ertxundiri  
elka eta

# BARREN

1999ko abenduaren 3a  
VII. urteci - 301. zkia

E L G O I B A R K O A S T E K A R I A



Urigoitia anaiak:  
ezberdinak,  
arra

# ñ/WW1titC// MERKATALGUNEKO DENDAK

**k a l a**  
l ore apatndurak

Ierun,6 • Tel. 943 74 45 16



*Etkez-etxeko zerbitzua,  
Mendaro eta baita  
Mendaroko Ospitalera ere.*



*Aldizkariak  
Tabakoa  
Prentsa  
Loteriak*



Ierun, 6« Tel. 943 74 44 23



*Alfonbrak etxean batu  
eta bertara eramaten ditugu.*

# ARKYPE

TINDATEGIA

LEHORREKO SUPERGARBIKETA eta ARROPEN DESINFEKZIOA



ALFONBRAK, TAPIZATUAK eta MOKETAK,  
LANTEGIKO ARROPEN GARBIKETA: BLJZOAK, BATAK,..  
ANTEAREN, LARRUAREN eta NOBUKAREN  
GARBIKETAN ADITI.JAK GARA,

Foruen enparantza • Tel.: 943 74 00 91/943 19 24 17

# Zabonen atarsn



MARITXU LOIOLA

izakiak mundu honen denbora zatiketa gin zuenetik, ehun urteko zatitik asko ematen du aldi horretan aldaketa handi asko gertatzeko. Baina azken ehun urte hauetan gertatu da, bai berebiziko aldaketarik. Ez dira urte asko arropak garbitzera errekarera joaten ginela: orain garbigailu automatikoa etxean oinatrizko tresna da. Ibiltariak gant, baina, batera eta bestera ibiltzeko alde ederra izan da urte gutxiren burman: lehen oinez egiten ziren bideak. Orain egiten ditugun mugimendu guztiak neurtuta dauzkagu: noski erlojuaren menpean bizi izatera behartu gaituzten tresnarik aurreratuenak ditugulako. Baina aurrerapen hanigarri horien aurrean, mendearen aldaketak gizakiari beldur izugarria eragin dio. Oraingoan ez da urte berri bat gehiago soilik, gizaldi baten azkenekoa eta mende berri bati hasiera ematen diona baizik.

Garai bakoitzak bere alde onak eta txarrak ditu. Aurrerapen hauei guztiei ongi etonia ematen diegu eta gizakiarentzat onuragani direla usate dutenen aurka, bada, eskuko telefonorik, ordenagailurik, faxik, robotik eta horrelako aurrerapenik gabe, gure aiton-amonon bizitza goxoagoa, gizakoiagoa zela dionik ere.

Zientziak eta aunerapenak bizitza errazten dute; horrekin batera beste hau esan beharra dago: egonezina, lasaitasunik eza ere eragiten dutela. Kontraesan hori zergatik ote? Zoriontasuna aurrerapen horietan oinarritu ez delako. Zarataren zorabioan murgildu ginenetik, isiltastum egon behar denik ez zaigu iruditzen, eta inoiz hurbiltzen bazaigu, isiltasun hori jasanezina gertatzen zaigu: Isiltasunak berarekin dituen doaiak arbuaiatu izanak zorigaitz ugari sortu du gizaldi honen azkenaldian.

Kaleak apaintzen dira, saltokietan era guztie-

tako opariak, jantziak, janariak .., eskaintzen dira, baina horrek guztiak gizakiaren barrenari dizdira gutxi eragiten dio; jaiurreko egunak pozganiagoak izan dira, sarritan jaiak beraiek baino. Familia gimak beti izan du eragin handia gabon jaien inguruan, baina kalean, gizanean, bizi den giroaren indarrez, gizartearen euskarri izan den gune hori gero eta ahulagoa izaten ari da. Aurrerapenaren izenean-edo, gizakiak galdu edo atzean utzi dituen balore askoren artean, familia giroa ere ez da kanpoan gelditu. Orain dela 2000 urte gertatu zen eta guztion barruan dagoen jaiotza honen aurrean, asko dira familiakoren bat falta denean, eta gure artetik joandakoaren oroitza penak nagusi izateagatik, egun hauek asetzen ez gaituztenean, "jaiak igarota baleude..." esaten dutenak.

Giza balio asko galdu direla esan dugu, eta galdu ditugunen artean nola ez aipatu garai bateko jatordu Ondorengo berriketaldi luze haiek. Jan bezain bizkor mahaitik jaiki eta berriz ere gure egitekoetara jotzen dugu. Lasai jani eta hitz egiteko gaitasun hori galdu egin dugu, elkarren arteko komunikazioak ez du lekurik gaurko gizartean, eta oso balio gutxi du portaera eta jarrera ona izateak; sentiberatasuna ahula izatearen parekoa da, eta gettakizun lanien aurrean jarrera hotza da tinkotasunaren adierazgarri, gogortasunaren irudi. Ez hori bakanik, munduaren globalizatze honen barruan, gizakia bera zenbaki bat baino ez izatera heldu da.


Honela izanda ere, Gabon jai hauen atarian, munduak duen gauzarik ederrena eta sakonena desioa da, eta nire aurtengo azken iritzian, irakurle guztiei opa diedan desioa honakoa da: "Jai zoriontsuak igaro ditzazuela eta 2000. urtearekin hasten den mende berria baketsua izan dadila".

Atal hau ez da BARRENen eclitoriala. Urtero 15 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.


## Barrak, Birrak eta Barreak

1/2(15-4150 VI,IV9N4Z

121121 21SY /511921Vg



# BARREN



Nafarroa enparantza, 2  
20870 ELGOIBAR  
z' 943 74 41 12  
Publizitatea:  
\*1 943 74 37 04  
Faxa: 943 74 37 04

E-maila: barren@topagunea.com  
Helbide informatikoa:  
www.ihardun.com/barren

ARGITARATZAILEA	Elgoibarko Izarra
LAGUNTZAILEA	Elgoibarko Udala
KAZETARIAK	Jon Eugi, Asier Orbea
PUBLIZITATEA	Maitane Cld
MAKETATZAILEA	Bea Ansola
ADMINISTRAZIOA	Amaia Martin
GERENTZIA	Rafa Alvarez, M. Angeles Ortuoste.
KOLABORATZAILEAK	Alnhoa Andonegi, Aitor Argarate, Idoia Arozena, Attzot Arriola, MartIn Dominguez, Jon Eugi, Juanito Gorostiza, Arnaitz Gorriti, Ion Gurrutxaga, KOKOE, Imanol Larrañaga, Aintzane Larrea, Ion Loiola, Ongarri Zine Kluba, iñigo Otaño, Jon Peli Uriguen, Iban Urizar, Amata Urzelai, Maite Vallejo, Lourdes Zubiaurre.
BANAKETA ARDURADUNA	Imanol Larrañaga
INPRIMATEGIA	Gertu Koop. E.
TIRADA	4.000 ale
LEGE GORDAILUA	SS-1.038/92
ISSN	1139-1855

Elgoibarko Udalak, Eusko  
Jaurlaritzako Kultura  
Sailak eta Foru  
Aldundiak diruz  
lagundutako  
aldizkaria.



gizarte-ekintza  
obra social

**DANOBAT**

**GOITI**  
GRUPO DANOBAT

## Nettao eta peto?

Zabaldu berria da *Netto* supermerkatua Elgoibarren. Gauza onik ekarriko ote dio herriari eta herritarroi? Nik ez dut uste.

Badakit herriko zenbait neska-mutil bertan arituko dela lanean, baina herriko dendariak zer? Inork ez al du hauekin pentsatu? Edo okerragoa dena, berdin al zaigu?

Alde batetik, kontuan izan behar dugu neska-mutil horien soldatak herritarren poltsikoetatik irtengo direla neurri handi batean; hau da, *Nettok* ez die bere dirurik emango, etxe horrek dirua jaso baino ez du egingo. Beste alde batetik, herriko denda txiki asko itxi egin dira edo ixteko zorian daude.

Hori nahi al dugu? Herritarren denda txikiak ixtea? Gure dirua kanpokoei ematea? Askok ez dugu 'blancura azulada, con liposomas' eta horrelako lerdokeriarik nahi (ez dugu horren beharrik), ezta sekulako erosketa, beste inon baino merkeago-gezurra!- eta antzekorik ere. Baina nahigabe bada ere, bertara jotzen dugu (neu lehenengoa). Ikusi besterik ez dago *Nettoren* inaugurazioan izan zen jendetza: denak txoratuta, han auskalo zer aurkituko zutelakoan... Izan ere, hain dira luzeak kontsumismoaren erpe ak...

Ordutegia alde batera utzita, gauza on bakarra daukate: anonimatoa edo oharkabean ibiltzeko aukera, hori Elgoibarren tamainako herri batean zaila bada ere.

Bestalde, normala da *Nettoko* zuzendariek nahi dutena: zilegi da negoziua egin nahi izatea, bai horixe! Hala ere, nik neuk dena bereganatu nahi dutenak ez ditut gustuko.

Sar gaitzen betiko dendetara ere, ez ditzagun miseria gorrian laga! Geure esku dago.

J. K. S.

Haizea Emakume taldea

## Oharra:

Abenduaren 8ko jai-zubia dela-eta, hilaren 10ean, ostira Iean, ez da BARREN argitaratuko. Hurrengo zenbakia abenduaren 17an izango da.

## Azkenaldiko hernzaketak direla-ela

Haizea Emakume Taldekook azken egunotako gertaerak ezezik emakumeok betidanik pairatzen ditugun egoera tamalgarriak salatu nahi ditugu: bortxaketak eta tratu txar psikiko zein fisikoak, zenbait kasutan heriotza eragin dutenak. Egoera tamalgarri honek konfidantzarik ezera, heldurra izatera eta menpekotasunera garamatza.


Gurasoek ez dituzte beraien alabak beldurtu behar, bizitzan norbere burua defendatzeko aski izan behar dugu emakumeok ere, eta segurtasunik ezari ere aurre egin behar zaio. Alabak ere ez dira zertan ikaratu behar. Berez hori nahi dute, emakumezkoak kalera bakarrik lasai ez irtetzea eta aitaren, senarraren edo mutil lagunaren beharra izatea.

Baina gertakari hauek zera ikustarazten digute: gu emakumeak autosufizienteak izan gaitzekela eta ez dugula zertan inoren menpe egon behar. Gure medioak eta babeserako mekanismoak martxan ipini ditzakegula. Izan ere, oraindik justizia gugandik oso hurrundago.

BARRENez ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskulitz guzliek ondo identifikatuta egon behar dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jarri: **izen-abizenak, NAN** eta **telefono zenbakia**.



• Herritar batek honako kexa hau bidali digu: Melitongo zubitik Lerungo industrialdera doan bidean 20-30 metro inguruan errepidetik joan behar da, ez baitago espaloirik. Industrialde horretan herritar asko ibiltzen da pasiaran, eta supermerkatu berria ireki dutenetik jende gehiago joango denez, arriskua gutxitzeko pasabide bat jartzea beharrezkoa iruditzen zait".



• Herritar batek honako kexa hau argitaratzeko eskatu digu: "Mendaroko ospitalaren parean dagoen autobus geltokiari estalkia edo markesina falta zaiola. Euskal Herrian daukagun klima kontutan hartuz, markesinarik gabeko autobus geltokiak ez dauka zentzu handirik, eurria eta hotza eguneroko kontuak baitira".

• Herritar batek honako kexa hau helarazi digu: "Nekazaritza sektorea tradizio handiko arloa da Euskal Herrian, eta baita bertako ekonomia-aren motore edo zati garrantzitsua ere. Hari dela eta, gure merkatua eta bertako produktuen salneurria (barazkiak, esnekiak, okela... etab.) babetu behar ditugu baserri-arrak edota baserritik bizi direnek irtenbide bat eta nondik bizi izan dezaten. Baina, guk gure produktuak defendatzen ez baditugu, norke defendatu-

ko ditu? Azken aldia antzeman dudanez, azalera handiko supermerkatuek ez dituzte baserriko produktuak errespetatzen, eta jendea horretaz ohartaraztea da nire asmoa. Bestalde, Udaleko agintariek, baime-nak erreztasun osoz ematen dituzten horiei, egoera honen herriko denda txiki eta ertainei eragiten dien kalteaz jabetzeko eskatu nahi nieke".


**TXALOAK**


• Lagun batek Asier Arrieta txalotu nahi du, "txalo hauek zuretzako dira Asier, zure helburua lortu duzulako. Datorren urtean Diego Garcíaren marka hautsiko duzu. Aupa Gebresselasi!".

**1111P**  
dausieyi 93aserricz  
i

ERRETSERBA EGITEKO

Tel. 943 74 31 02

CS C112 ICZ — **LI** z1a evuna,  
cz enoftia.k' 13, asiefehena

;r,sfeznen eyerneA) afari berezia

Wperviii6oa

9:rifoah'

9ufa efa farlyo, iliz2o enisalacia e, pela  
yraiinairucz

Za'allao-21aAixah' hcanyurro

cSaforñifio meorailOia onordo-sczlisareXir2

il:rezzazt;o

znaractiya-sargefearei(in

.7Calea

4.500 pla. + .93CZ (edarui aparle)

**Aktuazio berezia eta sorpresak!**

# Urigoitia anaiak: KOLORE DE

*Atletiak eta Realak bihar, hilak 4, San Mamesen jokatuko duten euskal derbia futbolza-  
leek ifusioz itxaroten duten partidua tzaten da. Eff taldeetako zale-tuen artean lehia handia dago eta der-bla inguratzen denean hika mikak no-nahf tzaten dfra. 13alta Elgoibarren ere, agian Blzkaia eta Gipuzkoaren arteko muga horren gertu izatearen ondorioz, Realzale eta Atletizale mordoa baltitu-gu herrian. Derbia eta bi taldeen arteko lehla nola bizi duten jakiteko Urigoitia anaiengana jo dugu. Anaiak izan arren, bata Realzale amorratua eta bestea Atletizale porrokatua baltfra eta blak ere oso ezagunak herrian.*

## Futbolak banatutako anaiak

Martin eta Iñigo Ilrigoitia anaiak 33 eta 26 urte dituzte hurrenez hurren. Martin, anaia zaharrena, Atletizalea denik esan beharrik ez dago. Atletiak partidua jokatzen duen bakoitzean Joseba Etxeberriaren kamiseta jantzita duela guztiok ikusiko zenuten noiz edo noiz herriko kaleetan. Iñigo, berriz, Realzale amorratua da umetatik. Realak eta Atletiak etxean jokatzen dutenean zerbait larria gertatu behar da bi hauek harmailetan ez izateko. Historikoki aurkakoak izan diren taldeen jarraitzaireak izan eta elkarrekin bizi diren arren, bi anaiak ongi konpontzen direla esan digute. Iñigok azaldu digun moduan, "danek esaten digute izakeraz oso antzerako pertsonak gerata, baina gure futbol gustuak oso diferentziak dia. Futbolan erruz eztabaida bat baino gehixo euki izan dou, eta bakoitzak beria defendidu arren, elkar errespetatzen ikasi dou edadian aurrera in ahala". Martin ere iritzi berekoa da, "Iñigon edadia nakanian bera oin dana baino forofuaua nitzan eta diskusio gehixo

eukitzen genitxun. Oin futbolari buruz gtxitan itxen dou berba. Gainera, telebista-ko partiduak tabernan ikusten ditzugu eta diskusio bakarrak han geratzen dia. Izan ere, futbolari buruz berba itxia ondo daua-  
la uste dot, baina bixotako batek bestiak arrazoia dakala onartzia da inportantie-na". Iñigok ere gauza bera uste du, baina

**"Bakoitzak bere ekipua defendiu arren elkar errespetatzen ikasi dou edadian aurrera in ahala".**

Iñigo Urigoitia



anaiak bere arrazoiak onartzeko erraztasun gutxiago duela esan digu, "Realak Atletixak moduan atzerritarrik ez eukitzia gustauko jatan esaterako, baina anaixari holakuak onartzia gehixo kostatzen jako".

## Futbolarekiko pasioaren jatorria

Martin horren Atletizalea izanik, nola uler daiteke Iñigo bere anaia gaztea Realzale amorratua izatea? Martinek gogoan duenez beti izan da Atletizalea, "nere aitxita-amamak Bizkaitxarrak eta Atletizale peto-petuak zian. Euren bitxartez sortu jatan zaletasuna eta gaur arte. Iñigo gaztiau da eta nik aitxixakin eta amamakin euki naban harremanik ez zaban euki. Gainera, argi dao ez dala Realekua neri kontra itxeko, berak ere barru barruan sentitzen dau Real". Bestalde, bat Realekoa eta bestea Attetkkoa diren bi anaia topatzea arraroa bada, benetan kuriooso dena, hauen ama Realekoa eta aita Atletikoa izatea da. "Etxian banatuta daoz indarrak, baina gurasuak ez dia gu ainako futbolzaliak, lasaixao hartzen dabe eta guri ere gogoratzen digue mundu hone-tan dana ez dala futbola, beste gauza asko daozela inportantiauak, baina guk ezin dou ebitau".

## Forofoegiak

Bi anaiak bat datoz beraien futbolzaletasuna gehiegizkoa dela onartzean, "partiduak tensio eta nerbixo askokin bizi ditzugu, eta batzutan asko sufritzen dou. Hori bai, gure taldiak irabazten dabanian munduko pertsonarik zorionsuenak gera, aurpegira beixuta bakarrik igartzen jaku ze in daben gure ekipuek. Galtzen dabanian, berriz, hurrengo 2 edo 3 egunak ez dia batere gozuak izaten". Iñigok azaldu digunez, "Mallabia eta Ermua aldian lan itxen dot eta

# BERDINAK, PASIO BAKARRA



okerrao da oindiok, danak kontra izaten ditxut-eta. Hala ere, ni ez naiz ixilik geratzen dian hoietakua eta gustatzen jataz futbolar inguruko eztabaidak, eta emaitzak aldekuak dianian baitxa bestiak zirikatzia ere". Bestalde, Martinek bere futbolzaletasuna gutxitzen ari dela esan digu, "urtiekin futbola ikusi eta jarraitzeko gogua bajau jata, baina beti izango naiz Atletizalia. Izan ere, neretzako Atletixa zer dan hitzez ezin leiket azaldu, baina asko esan nahi dau, Atletixa futbola bera baino gehixao gustatzen jata".

Atletixa zer dan hitzez ezin leiket azaldu, Atletixa futbola bera baino gehixao gustatzen jata". Martin Urigoitia



## Derbia: Athletic-Real norgehiagoka

Bi anaiantzat dendoraldiko partidu pplitenetakoa izaten da derbia, eta gogo eta urduritasun askorekin itxaroten dute partiduaren hasiera. Biek atsegin dute goizetlk joan eta Bilbo edo Donostiako kaleetan dagoen giroan murgiltzea. Pronostikoa ere eskatu diegu eta azken 14 derbietan Atletiak partidurik irabazi ez duela kontutan hartuz, Inigo umoretsuago ikusi dugu, "berdin jata zela, baina irabaztia da garrantzitsuena, Atletixan aurka irabazitako 3 puntuak berezixak dia-eta". Martinek, berriz, zalantza gehiago ditu, baina badu konfidantzarik bere Athletic kuttunean. Dena den, jokalarien esku dago gauzak argitzea. Izan ere, jokalarien 1anaren eta punteriaren arabera, Urigoitia anaietako batek pozik pasako du datorren astea, eta besteak, berriz, burua altxa ezinik, berdinketarik ez badago behintzat.

## Realzaleak



ELGOIBARKO *Jo TA SUA* PEÑAKO KIDE BATZUK DONOSTIAKO ALDE ZAHARREAN ATERATAKO ARGAZKIA. IÑIGO ERE BERTAN AGERTZEN DA, NOLA EZ.

## Athleticzaleak



MARITN URIGOITIAK LAGUN ASKO EGIN DITU ATHLETIC-I ESKER. ARGAZKIA BIZKAIKO HAINBAT PEÑATAKO LAGUNEKIN GIJONERA EGIN ZUTEN BIDAIA ATERATAKOA DA

ETA EPalindeak **su-etena hausteko erahakia** azaldu zuen **azaroaren 28an**.

# Fzusteian arrapatu Taitu 8,1 ptengrzzr amaierak?



**ANTONIO MORENO**  
55 urte, soldadorea

Tristea iruditzen zait. Ez nuen espero, egia esan. Politikoei kontutan hartu behar dute lehengoa, alde batekoek nahiz bestekoek. Biek jani behar dutelako zerbait.



**ANTONIO BERASALUZE**  
67 urte, jubilatua

Etorri bihar zala igual bai, baina ez naban pentsatzen hain azkar izango zani, ezustian harrapau nau. Gehixo negoziatu bihar da, bakian" alde dana in bihar dalako.



**PAULA PELAZ**

58 urte, gaiso zaintzailea


Zegoen egoera ikusita, ez da sorpresa handia izan. Ikusten nuen Gobemuaren partetik ez zegoela mugimendurik. Baina gauzak konpondu ahal izango direla uste dut.



**ROSA MARIA MORENO**

30 urte, etxeoandrea

Ez nago indarkeriarekin ados baina arrazoiak edukiko dituzte. Enua Gobernua da ez duelako ezer ere egin, ezta presoak Euskadira hurbildu ere.



**RLIRUTZ CASTRIJLLO**

41 urte, langilea

Espero zitekeen baina hain azkar ez. Gobernua ez da mugitu prozesua aurrera eramateko. Udalbiltza eta Lizarragaraz ik segitu egin behar dute, bestela tranpa egitea da.



**ESTHER ARRIZABALAGA**

68 urte, etxeoandrea


Ezustian harrapau nau eta penagarria da. Gobiernuak ez dau ezer ein, ez da ikusi borrodatetik euki dakabengan. Euskaldunak berriz ere aparta egotia bilatu dabe.

IKASTARO TEORIKO INTENTSIBOAK EUSKARAZ eta GAZTELANIAZ.  
ZIKLOMOTORREKO LIZENTZIA ASTEBETEAN. AZTERKETARIK GABE!

944(4


4444W4 Otkita frind044 **1 6 latetelo.**

*Zatoz informazio eske*



## I. URTEURRENA

1998ko azaroaren 20an, 69 urte zituela hil zen **FRANCISCO JESUS CALVO** ren (Mari Cresen Egurrolaren senarra) oroimenez **URTEURRENEKO MEZA** izango da Parrokian larunbatean, hilaren 4an, arratsaldeko 19:00etan. Joaten zaretanoi eskerrak alde z aurretik.







## Ghtlagako Foru Aldundiak 211

## paelalm IligulgunrRza

# onartu Albitarkth Fatnlallanko

Kopuru hau Europar Batasunak Ekaingo kobazulorako emandako dirutik dator

### Gipuzkoako

Foru Aldundiak Albitxuriko industrialderako 21 milioi pezetako dirulaguntza ematea onartu du. Diru hau Europar Batasunak emandako dirulaguntzetatik dator. Prentsan argitaratu denez, Europar Batasunak 221 milioi pezeta eman zituen Debarroko Udalek bulizatutako Ekaingo proiekturako. Baina, Foru Aldundiak Zestoak Ekain-erako aurkeztutako proiektuaren alde egin zuenez, dirulaguntza hau banatzea erabaki du. Horrela, zatirik handiena, 142 milioi Zestoarentzat izan dira, kobazuloaren



*Gillenno Garate alkateak diru laguntza hau ongi hartu duen arren, herriko industria garatu ahal izateko gutxi dela uste du.*

erreplika eraikitzeke. Bestea berriz, Elgoibarrentzat (21 milioi) eta Mutrikuarentzat izan da (58 milioi). Elgoibarko alkatea, Gillermo Ga-

rate harrituta agertu da gai honen inguruan agertu diren albisteekin, izan ere berak ez baitzekien horren berri. Garate *Debegesako* burua izan zen Debarroan Ekain kobazuloaren proiektua bultzatu zenean eta ez zuen uste halako dirutza eman zuenik Europar Batasunak. "Ez dakit nondik irten diren 221 milioi horiek, nik dakidala Debegesak aurkeztutako proiektuak 37 milioi bakarrik jaso baitzituen" azaldu digu.

Nolanahi ere, Elgoibarko alkateak ongi hartu du Albitxuriko industria garatzeko dirulaguntza hau baina bere ustez ez da nahikoa. Garateren arabera, diru gehiago behar da herriko industria bultzatzeko.

## Batera oiatatorma sortu da presoek eskubideak defendatzeko

Taldeak deitutako ostiraleko manifestazio isilean 100 lagun elkartu ziren

uskaI preso politiko-  
Fien eskubideak defendatzeko asmoz Batera plataforma sortu dute herriko erakunde ezberdinek. Plataforma horren barnean alderdi politikokak (EAJ, EA eta EH), sindikatuak (ELA eta LAB) eta arlo ezberdinetako taldeak (Errotatxo, Elgoibarko Gazte Asanblada, Elkarri...) eta pertsonak daude. Sakabanaketaren aurka eta euskal presoek euskal herritarrekin elkarrekin eskatzeko *Baterak* antolatutako lehenengo ekintza pasa den ostiralean, hilaren 26an, egin zen manifestazio isila izan zen. Bertan 100 lagun inguru bildu ziren




*Argazkian Batera plataforma osatzen duten partaideak ageri dira. Aurkezpena asteazkenean, hilaren 24an, egin zen Kultur Etxean.*

eta isiltasunean herriko kaleak zeharkatu zituzten. Manifestaziora joan zirenen artean, herriko alkatea den Gillermo Garate, Asier Zengotita EH-ko

zinegotzia eta Inazio Mugerza EA-ko zinegotzia zeuden.

Lehenengo ekintza hau F1goibarko presoek 15 urte kartzelan betetzean egin zen. Gaur egun, hiru preso elgoibartarrak, Iñaki Jaio, Mikel Alberdi eta Inazio Iriondo sakabanatuta daude. Iñaki Jaio Huescako espetxean dago, etxetik 400 kilometrotara. MikeI Alberdi Elgoibartik 200 kilometrotara dago, Kantabriako El Duesoko kartzelan. Inazio Iriondo da hiruren artean urrutien dagoena, Caceresen espetxerata baitaukate, herritik 700 kilometrotara.

Denak, 15 urte hauetan, Estatuko kartzela ezberdinetan egon dira zigorra betetzen.



## Elgoibarko presoek herritarren elkartasuna jaso dute asteburuko ekitaldietan

Mikel Alberdi, Iñaki Jaio eta Inazio Iriondo Elgoibarko presoek azaroaren 27an kartzelan 15 urte bete zituztela-eta, astebukaeran ekintza ezberdinak egin ziren. Ostiralean, hilaren 26an presoen senideei omenaldia eskaini zitzaizen. Ekitaldi horretan, txalaparta eta bertsoak entzun ahal izan ziren. Horrez

gain, dantzari batek aureskua dantzatu zuen eta omenaldia bukatu aurretik presoek beraien gutunen irakurketa egin zen. Ondoren, Benito Lertxundi kantariak kontzertu gozagarria eskaini zuen lepo betetako Herriko Antzokian. Larunbatean, eguerdian, Amnistiaren Aldeko Batzordeak deituta kontzentra-

zioa egin zen Plaza Handian. Bertan 50 lagun inguru elkartu ziren "Amnistia osoaren alde, presoak etxera" lelopean. AtTatsaldean, berriz, Elgoibarko Gazte Asanbladak antolatutako "Kazerolada" egin zen eta 30 lagun inguruk parte hartu zuten. Eguna jai giroan bukatzeko, kontzertua izan zen Gaztetxean.



## Udalak Gabonetako argiak jarri ditu

Urtero bezala, egun hauetan Udaleko langileek Gabonetako argiak jarri dituzte herriko kaleetan. Kaleak halako apainganiekin dotoretzeko lanak duela bi aste hasi zituzten eta aurki bukatuta egongo dira. Lehendabizi kale batzuetan ekin zioten argiak ipintzeari eta apurka-apurka kale guztietara heldu dira. Gabonak gero eta hurbilago daudela-eta, laster argituko dira kaleak bonbila hauekin.



## Antonio Marquez-ek bigarren saria lortu du Debarroko Ezti Txapelketan

Antonio Marquez, Elgoibarko eztigileak, bigarren saria eskuratu zuen igandean, hilaren 27an, Debarroko **Ezti Txapelketan**. San Andres jaien aitzakian Eibarren izan zen txapelketan, Mutrikuko ordezkariak eskuratu zituen lehenengo eta hiru-



garren saria. Marquez-ek, biganengoz hartu zuen parte eskualdeko Iehiaketa honetan eta adierazi digunez, "Milalore" klaseko ezti aurkeztu zuen. Aurten 800 kilo ezti bildu ditu eta saria lortu duen ezti hau erosi nahi duenak Merkatu Plazako zenbait dendatan dauka salgai. Datorren urtean bere eztiarekin Usurbilen izango den Gipuzkoako txapelketan hartuko du parte.

## Azkena dantzalekuaren inaugurazio ekitaldia izan zen ostiralean

Joan den ostiralean, hilaren 26an, *Azkena* dantzalekuaren inaugurazio ekitaldia egin zen. Bertara joan zirenek, aperitibo batzuk eta txanpain kopa bana doan edateko aukera eduki zuten. Horrez gain, dantza egiteko parada izan zen, tango eta salsa erakusketaldia izan baitzen. *Azkena* dantzalekua zenbait tabernarik egindako apustua da zapatu gaueko giroa suzperzeko eta herritarrak Elgoibarren bertan gelditzeko, alboko herrietara joan gabe.

• **Gabon Zaharreko feriarako egitaraua prestatuta dago**

Aurten Gabon Zaharreko feria abenduaren 31n \_izango da eta Udalak dagoeneko prestatuta dauka egun horretako egitaraua. Goizean hasita, ohi bezala, barazki, fruitu eta gazta lehiaketa izango da eta baita baserriko produktuen, hegaztien eta loreen erakusketa ere. Eguerdiko 12:00etan, Elgoibarko Ikastolak, "Labela" duten harakinen laguntzarekin, burduntzian erretako txabal pintxoak eskainiko ditu. Anatsaldeko 16:30etik aurrera, Trikitilari Eskolako ikasleen kalejira izango da eta 17:00etan, "Plazara dantzara" dantza ikuskizuna egongo da. Eguna bukatu aurretik, arratsaldeko 19:00etan Parroki Abesbatzak abestuko du herriko kaleetan.

• **Jubilatuen Etxeko ileapaindegia harizeko lehiaketan parte hartzeko epea zahalik dago**

Jubilatuen Etxeko ileapaindegiaren ustiapenerako lehiaketan parte hartzeko epea irekita dagoela aditzera eman du Elgoibarko Udaleko Gizarte Ongizate Sailak. Proposamenak Udaltzeko Erregistro Orokorrean aurkeztu behar dira goizez 9:00etatik 13:30era, 1999ko abenduaren 22a baino lehen. Argibideak eta agiriak lortu nahi dituenak Udaleko Gizarte Ongizate Sallera jo dezake. Telefono zenbakia 943 74 10 08 da.

**Lazo gorriak jarri zituzten haifflat enietalto balkoietan HIESaren aurkako Nazioarteko Egunean**

Pasa den asteazkenean, abenduaren 1 ean, HIESaren Aurkako Nazioarteko Eguna izan zela-eta, lazo gorritz apaindutako izara zuria jarri zuten hainbat elgoibartarrek



etxeko balkoian. Horrez gain, zenbait egoitza ofizialetan ere jarri zuten lazo gorriak. Egun berean, *Errotatxo* elkarteak kontzentrazioa egin zuen San Frantzisko iturrian HIES gaitza daukaten gaisoekiko elkartasuna erakusteko. Kontzentrazioan 25 lagun inguru bildu ziren. Aurretik, egun osoan, informazio mahaia jarri zuten San Frantzisko kalean eta lazo gorriak banatu zituzten herritarren artean.

# Gabonak 99

## Abcubdarnalka

### Begiraie Takiearekin

**Antolatzalea.**  
Elgoibarko Izarrak  
AbcuxiaTnaiKa tt. 1.

**Laguntzatleak.**  
Elgotharko Udala  
Eusko Jaurlaritzd

-2.1-29-30

Abeñak 00etara

Ordutegia, 1.0.00, 13.

Goizeko 0.00, 13.

iar. 3, mak'a

blorent Eskolaurreko 1.1.kko 1.-2.-3 mailak

Zer egingo dugu: Elgoibarko Gabonetako

Parkerak, 13) unera pan

nak

Eskula 01asak

?reiloa: 2.000 pta.

liena emate».. ra

Abenduaren 1.3-0(1.7

egotibor ko beheol

libitate 3

94

# F

ilabete honetako argazkia Garagartzza auzoan aterata dago. Bere garaian Jose Maria Linazasorok eraiki zuen eskolaren alboan (gaur egun ogia eta bizkotxoak egiteko egokitutako eraikinean). Azpiazu fabrika da argazkian agertzen dena. Erretratua Don Angel Basterretxeak, Mendaroko apaizak, utzi digu eta 1963 urte inguruan ateratakoa omen da. Hauek dira argazkian agertzen diren lau lagunak (ezkenetik eskumara): Felix Arrizabalaga, Jose Mari Berasaluze, Don Jose Roteta (Mendaroko apaiz ohia) eta Txomin Longarte.



## ILAIK INI E 111CAIK

KiliBARREN gehigarrirako KAZETARI bal behar da

### EGIN BEHARREKO LANA

- Mendaroko KiliBARREN gehigarria.
- Hilean 13 ordu inguruko lan bolumena.

### ESKATZEN DA

- Euskaraz zuzen hitz egin eta idazteko gaitasuna.
- Autoa eta gidatzeko karneta.
- Harremanetarako gaitasuna.
- 18-35 urte izatea.

Mendarokoek fehentasuna izango dute. Urtarrilean hasteko lana izango da eta diruz ordainduko da.

oniatako azkaa agoiaa. ABENDUAREN 17a (ostirala)

hicalum-ak eta Informazio yom Mendaroko UDALETBEAN (Tel. 943 75 61 00) eta Elgolbarko Izarra Kultur Elkarte, Ubitarte 4, behea (Tel. 943 74 16 26)

# MENDARO TXIRRISTAKA



## bertsolaria

Eusebio Mugerza "Txirristaka", Mendaron jaio zen 1874ko abenduaren 15ean, Kilimoi erreka-eremuko bazterrean zegoen Barberokua edo Intsausti zeritzan errotan. "Duque del Kilimon" ezizena jarri zioten hori zela-eta. Familian 11 anai-arreba ziren, aita errotaria zen, ama, berriz, jostuna. Honela azaltzen ditu Mendaro Txirristakak bere jaiotza eta zazpi urte zituela San Agustin konbentuan apaizari laguntzen egindako lanak, berak idatzitako bertsoetan:

**Zorizi seme ta iru alabak  
ziren mundura ekarriak  
nere gurasuak Pedro eta Juana,  
zorionekuak biak;  
panaderiya ebaan eta  
errotan iru arriyak,  
astuak eta zaldi bikaña  
uztarriya efa beyak.**

**Milla zortzireun irurogei ta  
amalaugarren urtian,  
ni ndz Mendaron jaño nitzana,  
Garagarizako partian;  
muti koxkorra, urtiak zazpi  
kunplitu gabe artian,  
kapeilanari meza lagunizen  
nion konbentu batian.**

Bere bizitzari buruz gaur egun dagiguna berak idatzitako bertsoetatik ateratakoa da. Bat bateko bertsoak

baino idatzizkoak egiten zituen, bertso paperak alegia. Asmatu, idatzi eta ondoren, feriaz feria ibiltzen zen bertsoak kantatuz eta salduz. Bere bertsoek gain, aintzinako bertsolarien bertso paperak ere izaten zituen salgai.

Jendeak "Mendaro Txirristaka" izenez ezagutzen zuen bertsolari hau nahiko alproja izan zen. Berau sasi-bertsolana zela esan genezake, eta mota horretako bertsoak egiten oso ongi moldatzen omen zen. Euskaraz zein gaztelera idatzitako bertsoak bildu zituen. Euskaraz idatzitakoak ongi eginak eta zuhurak, gaztelaniazkoak, berriz, aldrebesak eta farregarriak. Sasi bertso famatu hauetan politika, berdekeriak eta beste hainbat gai jorratu zituen. Hona hemen Txirristakaren bertso xeble horietako baten adibidea, bertan euskara eta gaztelania

nahasian erabili zituen:

**En ei barrio de Amara  
Lolitan etxian  
dan tripacallos xon un cuartillo  
errial batian  
ademas hay derecho  
meriendatzian  
de hacerle un zirri a la criada  
atian atzian.**

Txirristakak, euskal estrofen artean, gazteferazkoak sartzen zituen, gehienetan euskarazkoekin lotura aldrebesa bazuten ere.

Bertsolari sonatua jaio zela, datorren abenduaren 15ean beteko dira 125 urte. Hori dela-eta, egun harretarako bertarako hainbat ekintza antolatu dira Txirristakaren omenetan.

## Antonio Zabalaren hitzaldia

Datorren abenduaren 15ean, Antonio Zabala idazleak hitzaldia eskainiko du iluntzeko 21 :30ean Kultur Ebean. Berau izan zen Txirristakaren bertsoak bildu eta bere bizitzari buruzko liburua idatzi zuena, beraz, izango du Mendaroko bertsolari xelebre honen inguruan zer kontatua.

## Bertso paper lehiaketa

Txirristakaren jaiotzaren urteurrena medio antolatatu duten ekintzetako bat bertso paper lehiaketa da. Bertan Euskal Herriko edozein biztanlek hartu ahal izango du parte, hori bai, kontuan izan beharko du errima librean egindako bertso sorta bakoitzak gutxienez sortzi bertso izan beharko dituela. Bestalde gaia, bertsolaria bera izango da, Mendaro Txirristaka alegia. Bertso paperak aurkezteko epea abenduaren 1 Oean bukatuko da. Epaimahaia bertsolari-tza munduko hainbat adituk osatuko dute eta irabazieentzat sari interesgarriak izango dira. Lehenak 100.000 pezeta eskuratuko ditu, bigarrenak, berriz, 70.000pezeta. Sariak abenduaren 1 8an egingo den bertso afariaren ostean banatuko dira.




GOIAN, JOXE AGIRRE .  
AZPIAN, JOXE LIZASO.

## Bertso afaria

Esan bezala, abenduaren 1 8rako bertso afaria antolatuko du Udalak. Afaria gaueko 21 :00etan izango da Aizpe elkartearen bertan Agirre eta Lizaso bertsolariak arituko dira. Afarira joan nahi duenak abenduaren 10era arte izango du izena emateko epea zabalik. Txartelak 2.800 pezeta truke eskuratu ahal izango dira Txirristakan, Ormolan, Morroskilon, Leku Onan edo Udaletxean. Antolatzaileek afarian giro ona izango dela iragarri digute, eta Aizpe elkartearen 90 lagunentzako lekua dagoela kontutan hartuta, kopurua betez gero zerrenda itxi egingo da. Beraz, giro bikainaz gozatu nahi duenak, bizkor ibili beharko du.

# "Txirristakak ospe handia eman zion Mendarori"



## Juanjo Goikoetxea

Gizon honek Mendaro eta mendarotarrei huruzko kontu ugari dakizkiela gauza jakina da, eta bertan baita Txirristakari buruz (<) zehait gauza ere. Beraz, gure artera ekarri dugu hertsolariari huruz dakiena azaldu diezagun.

- **Zenbat urterekin hasizen Txirristaka bertsolariiza munduan?**
- Oso gazte zela hasi zen bertsoan, hau izan baitzen bere gustuko zaletasuna.
- **Nolako gaiak erabiltzen zituen bertsoarako?**
- Gai ezberdin asko, bere bizitzako gertaerak eta alor ugariak kontuak bertsoan azaltzen zituen.
- **Ba al zuen familiarik?**
- Bai, emakume donostiar batekin ezkondu zen Aingeru Guardako Egunean. Hiru alaba ere izan zituen, baina horietako bat gazterik hil zen.
- **Non bizi izan zen?**
- Garagartza auzoan zegoen "Intxusai" errota zaharrean jaiotzen zen, errota hau orain urte batzuk bota zuten. Hala ere, bere bizitzan asko bidaiatu zuen, batez ere, Ameriketara, Hego Amerika iparraldetik hasi eta hegoaldera arte gurutzatu zuen.
- **Bertso paperetan omen zen espezialista, ezta?**
- Bai, hala da. bertso paperak egiten zituen, eta ondoren, herriz herri joaten zen bertso horiek abesten eta salken.
- **Nolako harrera izan zuten bere bertsoek?**
- Oso ona. Bai Mendaron eta baita inguruko herrietan ere. Ospe handia eman zion Txirristakak Mendarori. Norbailek nongoa zinen galdetu eta Mendarokoa zirela erantzutean, berehala gogoratzen ziren Txirristakarekin.
- **Txirristakaren bertso asko al daude gordeta?**
- Bai, bertso idatziak zirenez, bat batekoak edo ahozkoak mantentzea baino errazagoa izan zen. Gainera, Aita Zabalak liburua oso interesgarria idatzi zuen Txirristakaren bizitzari buruz, eta bertan bertso asko jaso zituen.

## Gabonetako ekintzak

Abenduaren 24an arratsaldeko 16:30etik aurrera Olentzero irtengo da Mendaroko kaleetara Mendaroko Eliz Abesbatzarekin batera. Hurrengo igandean, hilaren 26an, frontoian eta Herriko Enparantzan Jolas Parkea jarriko da eta bertan herriko umeek gelditu gabe jolasteko aukera edukiko dute. Jada urte berrian, urtariraren 5ean, Erregeen kabalgara irtengo da kaleetara *Arno* Guraso Elkartearen ardurapean.

## Euskarazko V. Ipuin Lehiaketa

Mendaroko Udaleko Euskara Batzordeak Gabonetako Euskarazko V. Ipuin Lehiaketa antolatu du. Lehiaketak 3 maila edukiko ditu: 1) Mendaroko San Jose Ikastetxeko O.H.O.ko 5. eta 6. mailako ikasleak; 2) Debarroko ikastetxeetako D.B.H.ko 1. eta 2. mailako ikasleak; eta 3) Debanoko Ikastetxe ertainetako ikasleak. Gaiak libreak izango dira eta lanak Mendaroko Udaletxera bidali behar dira (Kilimon hiribidea 7, 20.850 Mendaro) 1999ko abenduaren 10a baino lehen. Sariak 2000. urteko urtariraren 9an, eguerdiko 13:00etan, Mendaroko Udaletxean banatuko dira. Sariak honakoak dira: 1) kategorian: Lehenengoarentzat 10.000 pezetako materiala eta oroigarria. Bigarrenarentzat, 5.000 pezetako materiala. 2) Lehenengoarentzat, 12.000 pezetako materiala eta oroigarria. Bigarrenarentzat 8.000 pezetako materiala. Katgoria honetan herriko lehenengoak 5.000 pezetako materiala jasoko du. 3) Lehenengoak 35.000 pezeta eta oroigarria eskuratuko ditu. Bigarrenak 20.000 pezeta eta herriko onenak, aldiz, 10.000 pezeta.

## Kontzezio Azoka izango da abenduak 4



Bihar zapatua, abenduak 4, Kontzezio Azoka egongo da Mendaroko frontoiaren inguruan. Goizeko 9:00etan hasiko da azoka eta eguerdiko 14:00ak arte luzatuko da. Norberak landutako produktuen erakusketa eta salmenta honetan inguruko baserri-tanek hartzen dute parte. Besteak

beste, honako produktuak egongo dira salgai: barazkiak, frutak, eztiak, sagardoa, ogia, gazta, Mendaroko txokolateta eta baita nekazaritza ekologikoenak ere. Horrez gain, hegaztiak ere egongo dira salgai. Halaber, ganadu eta artisautza erakusketa eta salmenta egingo da goiz osoan.

## Koruak Berasaluze anaiak omenduko ditu

Datorren asteazkenean, abenduaren 8an, Kontzezio egunez, Mendaroko Abesbatzak omenaldia eskainiko die Berasaluze anaiei. Anai hauek merezia dute halako omenaldia hainbat urtetan korua zuzendu dutelako. Horrela, eguna ondo hasteko, goizeko 11:00etan, Meza



nagusia izango da Garagartzako Elizan. Bertan Algortako Bihotz-Alai abesbatzak abestuko du. Ondoren, Jose Luis Irizar pianojoleak bi pieza joko ditu eta amaitzeko Bihotz-Alai abesbatzak omenaldia eskainiko du. Omenaldia bukatu ostean, ohitura onei jarraipena emateko, ardo goxoa eta pastak banatuko dituzte Garagartzako elizpean.



*Gaur egun Donostian bizi bada ere, Iban Esnaola 30 urteko abokatu Elgoihartarra da. Duela egun batzuk 5 euskal gazteri Galizian egin berri dioten epaiketa militarrean abokatu lanak egin ditu. Komunikabideetan oihartzun handia izan du albiste honek, izan ere, Franko hil zenez geroztik zibilen aurkako lehen epaiketa militarra izan da Espainiar estatuan. Galiziatik bueltan Elgoibarrera egin duen bisitatxo arohetzatuz, Ihanen abokatu esperientzia nolakoa izan den ezagutu nahi izan dugu.*

## "Etorkizunean Zuzenbide penalean lan egitea gustatuko litzaidake"

— Zergatik epaitu dituzte 5 euskal gazteak?

- Kode penal militarrean 61. artikuluan azaltzen den delitu bat egin zutelako, hau da, zibilak izanik militarren lurraldean sartu ziren. Izan ere, Gipuzkoako Talde Antimilitaristako 5 kidek militarismoaren aurkako protesta burutu zuten iazko martxoan. Loiolako koartelean sartu ziren eta bertako kanoiak kondoiez estali ostean, kateatu egin ziren. Ekintza honen ondorioz epaitegi militarrek bi urteko kartzela zigorra eskatzen du gazteontzat.

—Galizian egin den epaiketatik etorri berri zara. Zer moduz?

Alde batetik, akusatuak nahiko gustura geratu dira epaiketarekin, gutxienez hitz egin eta nahi zu-

tena esateko aukera izan baitute. Fiskalak esaten zuena ez zitzaien axola, argi zuten ekintza hura zergatik egin zuten eta beraien diskurtsoa botatzen jarraitu zuten. Bestalde, sententzia ikusteko dago eta horri dagokionez itxaropen gutxiago dituzte. Gizarte mailan jaso duten babes eta laguntzarekin ere oso gustura daude, azken finean hori baitzen beraien hasierako belburua.

— Noiz eta nola sartu zinen intsumituen abokatu munduan?

- 5 urte daramatzat abokatu lanean, eta tokatu zitzaidan lehenengo kasua nire burua defendatzea izan zen. Soldaduzkari uko egiteagatik epaitu ninduten eta 2 urte 4 hilabete eta egun bateko zigo-

rra ezarri zidaten. Kondenatu egin ninduten, baina indultoak eskatu nuen eta oraindik baiezkoren edo ezezkoren zai nago.

Orduetik aurrera antimilitarismoarekin lotura duten kasuetan lanean aritu naiz eta horrela heldu zitzaidan 5 gazte hauen abokatu izateko aukera.

—Zein da antimilitarismoaren gaur egungo egoera?

Defentsa ministeritzaren aurrekontuak, Osasun eta Hezkuntza ministeritzen aurrekontuak batura baino askoz altuagoa izaten jarraitzen duen bitartean, lan asko dago egiteko. Gainera, herrialde garatuetan Defentsa ministeritza deitzen zaion arren, sekula ez dira barne defentsarako erabiltzen, kanpoko arazoak bideratzeko baizik. Azken aldian, Balkanetan gertatua da esaten dudanaren adibiderik argiena.

—Zein dira abokatu lanean etorkizunerako daukazun helburuak?

- Momentuz intsumituekin jarraituko dut, baina gai hau urte batzuk barru desagertzera kondanatu dagoela badakit. Ondoren, zuzenbide penalean lan egitea gustatuko litzaidake. Hilketak, lapurretak eta beste mila eratako delitoekin zerikusia duten kasuetan, alegia, hori baita gehien erakartzen naue-na eta intsumituekin lanean ibili naizen bitartean asko ikasi dut. Bitartean, ordea, ailegatzeko zaigun guztia hartzera behartuta gaude.

# IBAN ESNAOLA

### L'ESTEEK ESANA

"Pertsonalki eta profesionalki erabat konprometitua da Iban." LUTXI ARREGI, laguna.



## AZAROAN

### • • • JAIOTAKOAK • • •

- Ane Galdos San Martin (Azaroak 3)
- Josu Palacios Lartain (Azaroak 3)
- Ivan Carrascal Lorenzo (Azaroak 7)
- Leire Rascon Arriola (Azaroak 17)
- Pablo Luis Gomez (Azaroak 20)

### • • • EZKONDUTAKOAK • • •

Guk dakigula, hilabete honetan ez da inor ezkondu Elgoibarren.

### • • • HILDAKOAK • • •

- Isabel Bergaretxe Ardanza, 86 urte (Azaroak 6)
- Fermina Arakistain Kortaberria, 93 urte (Azaroak 9)
- Rafael Areitioaurtena Osoro, 69 urte (Azaroak 10)
- Luis Maria Guzman Gonzalez, 44 urte (Azaroak 13)
- Caridad Crespo Fernandez, 71 urte (Azaroak 27)
- Isidro Mugerza Garagarza, 70 urte (Azaroak 27)


## Allodesta Osoro Areitioaurtena

550-1952)



- 1900eko ekainaren 15ean jaio zen San Pedro bailarako Olaso baserrian (hilerriaren aldamenean zegoena). Zazpi anai-arreha izan ziren, bera hirugarrena.
- Kalea gertu eduki arren, ez zuen gaztetan ikasketak egiteko erraztasunik izan, baina denbora Iaburrean bada ere aritu zen publiketan.
- Sasoi hartan etxeko eta baserriko lanak egin zituen familiari laguntzeko. 14 urterekin zerbitzatera atera zen auzoko Olasarte jauregira (Signaa lantegi aurrean zegoena) eta bertan egon zen denboraldian.
- Amabirjinaren kongregaziokoa izan zen. Garai hartan ohitura zen bezala, lagunekin San Pedroko, Arrateko, etabatTeko enomerietara joaten zen.
- Gero Eibarrera joan zen zerbitzu eta sukaldaritza lanak egitera "Bar Balentina" tabemara. Beti egon zen etxetik gertu eta gogokoak zituen San Pedroko jaiak.
- 1927an ezkondu zen Modesta, Buenos Airesen (Argentina) bere osaba Rafael Areitioaurtena Mallabianarekin. Handik, Mendoza hiriburura joan ziren bizi izatera. Hemen bi seme-alaba izan zituen Rafael eta Ofelia. Rafael, semea, *Argembloa* ezizenez oso ezaguna zen herrian. Bera izan zen Mugerza krossean lasterka aritu zen lehen atzerritarra, eta herriko beste hainbat gauzetan ere lagundu zuen.
- Modestaren senarrak esne denda eduki zuen Mendozan eta bertan ongi bizi izan ziren.
- Emakume jator hau 1947an alargunduta etorri zen familiarekin Elgoibarrera bueltan, bere jaiotetxera, Olaso baserrira, hain zuzen ere. Hemen hil zen 1952ko azaroaren 5ean, 52 urte zituela.

Juanito Gorostiza



# ETXEBERRIA

## zerbitzua

OSOA eta 24 ORDUKOA

KUTXAK - TRASLADOAK - KOROAK

NORBANAKOEI eta KONPAINIEI

zuzenduriko zerbitzuak.

**Donostia eta probintziako eritetxe zentroetan ere bai.**

Santa klara, 14 20 870 ELGOIBAR

Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27 (Etxekoa) 943 74 01 17 - 74 16 56 (Mobila) 608 77 07 01



**A**

ste honetako erretratua *Begoña Latta Izetak* laga digu eta 1960. urtekoa da. Juan Bautista Izeta elgoibartarra 40 urte luzez aritu zen Ondarruko Musika Bandan zuzendari lanetan eta 1960ko azaroaren 20an omenaldia eskaini zioten Ondarruko herritarrek eta Udalak. Omenaldi egunean Elgoibartik bertafatu zen taldetxo bat eta omenduarekin batera argazkia ateratzeko aukera ere aprobetxatu

zuten. Ikus dezagun, beraz, argazkian agertzen direnak zein diren.



Goian, ezkerretik eskumara: **Begoña Latxa, Pako Aizpiri(t), Segundo Zengotita "Patri"(t), Antonio Usabiaga(t), Jose Ansola "Txanbolin"(t), Demetrio Vallejo(t) eta Julian Ansola "Txanbolin"**.

Beheko ilaran: **Felix Ansola "Txanbolin", Don Agustin Etxeberria(t), Teresa Martinez de Lueo(t), Juan Bautista Izeta(t), Maxima Izeta(t). Angelita Azkue(t) eta Luis Ansola "Txanbolin"(t).**




### **ESKERTZA**

*1999ko azaroaren 27an, 71 urte zituela hil zen CARIDAD CRESPO FERNANDEZEN sendiak, bihotzez ESKERTZEN ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*



### **ESKERTZA**

*1999ko azaroaren 27an, 70 urte zituela hil zen ISIDRO MUGERZA GARAGARZAREN sendiak, bihotzez ESKERTZEN ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*



# KAFE USAINEAN

Antolatzailea:



Gabi Agirregomezkorta, gitarra  
Joseba Alonso `Aloni, ahosoinua  
Aitor Badiola, ahotsa eta gitarra  
Jon Gurrutxaga, ahotsa eta perkusioa

**Abenduak 10, ostirala  
gaueko 22 30ean  
Kultur Etxeko Sotoan**



Pianoan,  
Silbia Hernandez

500 pta.  
KAFEA, PASTAK  
eta KOPA.

Laguntzaileak:



UDALA  
eta  
INAZIO BEREZIARTUA  
MUSIKESKOLA



FORU ALDUNDIA

## BERTSO JAIALDIA

**A. Egaña  
S. Lizaso  
M. Luianbio  
J.M Irazu**



**Abenduak 17, ostirala  
gaueko 22.30ean  
Herriko Antzokian**

## IX. Koadrilen Arteko Gabonetako Txapelketa abenduaren 27tik 30era bitartean izango da

Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak urtero antolatzen duen Koadrilen Arteko Gabonetako Txapelketaren 9. edizioa, abenduaren 27tik 30era bitartean jokatu da. Izena emateko azken eguna abenduaren 1. fiantz izango da eta parte hartu nahi duten talde edo koadrilek Olaizaga kiroldegira jo behar dute. Udal Kirol Patronatutik adierazi digutenez, aurtengo berrikuntzarik aipagarriena sarietan aurkituko dugu. Izan ere, txapelketako irabazleek 40.000 pta. eta garaikunt jasoko dute, eta bigarren sailkatuak, berriz, 20.000 pta. eta garaikuna. Azkenik, 3. eta 4. geratzen diren taldeek garaikurra jasoko dute. Parte-hanazaleek 5 kiroletan neurtuko dituzte inclairrak: saskibaloiat, areto futboleant, krolean, txinindularitzan eta palan. Parte hartzaileen kopuma beharraz joan da urtetik urtera eta iaz 10 taldek bakartik hartu zuten parte.



*Txapelketarako izena entateko azken eguna abenduaren 16a, osteguna, izango da.*

## Zarta Arkulari Taldeko Itzargi Monasteriok Barakaldoko txapelketa irabazi du



Duela aste batzuk BARRENEko orrialdeetan azaldu genizuen moduan, Zarta Elgoibarko Arkulari Elkarteak sortu zenetik denbora gutxi pasa bada ere, jadanik hasi dira txapelketetan emaitza onak eskuratzen. Itzargi Monasterio eta Ramon Blanco "Txuri" Zartako kideek Barakaldoko Arku Tiraketa Txapelketan parte hartu zuten pasa den azaroaren 28an. Guztira, 40 parte-hartzaile inguru izan ziren bertan, eta 18 metroko distantziatik 60 gezi hota ostean, Itzargi Monasteriok lortu zuen puntuaziorik altuena eta berak jantzi zuen txapela. Ramonek, berriz, hiruganen postua eskuratu zuen.

## Euskadiko eskubaloi selekzioak 6 elgodlartar konbokatatu ditu

Euskadiko Eskubaloi selekzioak 6 elgoibartarrei deitu egin die abenduaren 4tik 8ra bitartean jokatu diren partiduetan parte hartzeko. Joseba Sagasta elgoibartarrak Euskadiko jubenil mailako taldearekin "El Pilar" izeneko lagunarteko txapelketan parte hartuko du. Erika Etxabe eta Oihana Apellaniz jubenil mailako jokalariek, berriz, Espainiako Txapelketako sektorean jokatu dute. Lehen partiduan, Nafarren aurka neurtuko dituzte indarrak, abenduaren 5ean, eta bigarren partidua Errioxako taldearen aurka jokatu dute, abenduaren 6an. Azkenik, Pagoaga-Elgoibar taldeko 3 jokalarik kadete mailako Euskadiko selekzioarekin arituko dira Asturiasko taldearen aurkako partiduan.

## Dani Arenas Espainiako Elitza Xeheko Txapelketaren finalerdia jokatzeko sailkatu da

Dani Arenas, ehiztari elgoibartarra, Gipuzkoako Ehiza Xeheko txapeladuna da eta pasa den zapatuan, azaroaren 27an, Euskadiko Ehiza Xeheko Txapelketan hartu zuen parte. Txapelketa Araban jokatu zen eta Danik 3. postua eskuratu zuen. Dena dela, hiruganen postuari esker, Sorrian jokatu den Espainiako Txapelketako finalerdian parte hartu ahal izango du, hilaren 4an.

## Nazioarteko 9. Xake Txapelketa abenduaren 13tik 21era bitartean jokatu da

Zubi Ondo Elkarteak, Euskal Xake Federazioak eta Udal Kirol Patronatuak antolatzen duten Nazioarteko Xake Txapelketa azaroaren 13tik 21era arte jokatu da Kultur Etxean. IX. Txapelketaren aurkezpena, berriz, abenduaren 13an izango da. Nazioarteko txapelketa honek 11. kategoria du, eta atzerriko hainbat herrialdeetatik etortzen dira parte-hartzaileak. Iaz esaterako, Van Der Wiel holandarrak irabazi zuen.

### EMAITZAK

#### Futbola

Haundi 2 - San Pedro 1 (3. maila)  
Elgoibar 2 - San Ignacio 1 (Jub. E.L.)  
Zumaiako 3 Elgoibar 1 (1. erreg.)  
Aurrera Ondarroa 3 - Elgoibar 3 (2. kad.)  
Lengokoak 2 - Elgoibar 1 (0. int.)  
Mondragon 0 - Elgoibar 4 (Neskak)  
Aretabaleta 1 - Pedrusko 2 (1. erreg.)

#### Eskubaloia

Tecnomeca Elg. 38 - Undetaka 13 (Kad. mut.)  
ITE. Hondarribia 14 - Gaur Elg. 19 (Kad. mul.)  
Urola Irimo 23 - Pneumax 26 (Juh. mut.)

#### Pilota

##### Gipuzkoako Txapelketa

Milelena/Parda 5-Ulazia/Anzmedi 22  
Gabirando/Inlyausd 22 - Perea/Lean 2 a

##### Idarraga Kafeak 2. saria

HAUNDIko jokalarik erregularrena 99/00

#### JOKALARIA ..... PUNTUAK

1- Aranberri .....	26
2- Castro .....	25
3- Zulaika .....	
4- Polo .....	21
5- Alberdi .....	1141
6- G. Leonardo .....	10-12
7- Bravo .....	
8-Casilllo .....	8
9- Diaz .....	
10- Ibarluzea .....	6 41
11- Txasio .....	
12- Caro .....	4
13- Manolo Ramos .....	4
14- Guarrotxena .....	
15- Alcorta .....	3-13
16- Baq .....	3
17- Fernandez .....	2
113- Loren .....	

### DA

#### Eskubaloia, Kiroldegian

Ostirala, 3  
21:00 I.M.H. - Donibane (Senior mut)



## "Ez 1 sekv gota 2xarrez

flU

*Benito Lertxundi kantariak kontzertu arrakastatsua eskaini zuen pasa den ostiralean, hilaren 26an, Herriko Antzokian. Presoen omenez antolatutako kontzertuak sekulako ikusmina sortu zuen eta horren froga garbia, aldez aurretik salgaijarritako sarrera guztiak azkar saldu zirela da. Bestalde, oriotarra ez da atzo goizean hasitakoa, **kantari** bezala 35 urteko ibilbidea baitauka. Urte guzti horietan sekula ez duela gogo txarrez kantatu aitortu digu.*

**Aspaldiko partez** Elgoibarren jo duzu berriz ere.

-Bai, aspaldiko partez. Ez dut ongi gogoratzen baina urte asko direla uste dut. Oker ez hanago lkastolako Frontoian izan zen kantaldi hura.

**Ba al daukazu oroitzapenik kontzertu hartaz?**

-Errezeloa dut ikaragarritzko hotza egiten zuela. Inpresio hori daukat, hotzarena. Gitarra jotzeko garaian eskuak-eta izoztuta bezala nituela gogoratzen dut. Hotza oso txarra da kantaldi bat emateko. Alde horretatik piska bat lard ibili ginen. Baditut beste oroitzapen batzuk beste tokietakoak hoztarekin lotutakoak eta Elgoibarkoa horietako bat ez ote izan dut errezeloa.

**Antzoki honek ez du eszenatoki harekin zerikusirik, ezta?**

-Ez, noski. Antzokiak aproposak dira kontzertuak emateko. Akustika aldetik igartzen da. Nexi, baina, kiroldegiak-eta oso bihuniak ez direnean, gustatzen zaizkit. Nik kontzertu asko eman ditut frontoietan eta kiroldegietan, eta azkenean hor gelditzen da kultur arrasto bat bezalakoa, honegatik beharbada espazio ireki horiek gustatu egiten zaizkit.

**Ordutik asko aldatu da kantaldietako giroa.**

-Egia esan, azken urte hauetan dena aldatzen joan da. Belaunaldi berri bat sartu da kantaren eta musikaren munduan eta entzulegoa bera berritzen ari dela egia da. Guzti horrekin, esan gabe doa, jarrera berriak eta gogo berriak sortu direla,

**Euskadiko Orkestrarekin diskoa grabatu ostean, berriz ere loraldi bat bizi duzula ir-uditzen al zaizu?**

-Orkestra Sinfoniko batekin kantatuz gero, baduzu badinidi horrek halako homologazio bezalakoa ematen duela zenbait jenderen aurrean, Nire betiko jarraitzaileek berdin segitzen nautela iruditzen zait. Nire kasuan beti ikusi dut gauza bat, atentzioa deitu didana badudala jarraitzaile mota bat, baina ez dut esaten pertsona berak direnik. Duela 30 urte sentsibildade mota bateko jendea nere kantuekin engantxatzen zen. Gero, haien ondorengo batzuk ere, sentsibildade berekoak

izanik, bere gurasoek bezala bizitzen dute. Nik hori beti ikusi dut eta oso bitxia iruditu zait. Nik uste dut jaimitzaile horiek berdintsuak direla lehen eta orain. Gertatzen dena da Orkestra Sinfonikoarekin eginez geroztik, beste jende mota hat dela eta horrek ematen duela falta zen zerbait. Neretzako ilusioen mundua da, ilusio tontoa da. Agian, horrekin heste jende mota bat neureganatu dut baina nik nire jarraitzaileak Orkestra Sinfonikoaren aurretik eta geroztik ez ditut aldatuak ikusten.

**Zuk beti eduki duzu euskaldunen estimazioa, hasi zinenelik.**

-Nik zerbait egiten dudanean, ez dut egiten honen ondorioz hesteek hartuko duten jarreraren pozarengatik. Nik, kantagintza, nere bizitzan aurkitu nahi ditudan, ulertu nahi ditudan zenbait gauzen nolabaiteko heste tresna bat bezala hartzen dut. Kantagintzak ematen dit gauza askotaz hausnartzeko aukera. Kantagintza alde horretatik oso baliagarria dela

iruditzen zait. Horretaz gain jendearen estimazioa badator hainbat hobe. Azkenean estimazioa koherentzia baten ondorioz izaten dela uste dut. Koherentzia bat dagoenean oso zaila da kale egitea. Lehentxeago

edo beranduxeago jendearen estimazioa izaten da, jendeak somatzen duelako koherentzia hori.

**II 35 urteko kantari ibilbidearen ondoren, kontzertu bakoitza erronka hat al da oraindik?**

-Bada ezaugarri hat nigan oso tinkoa: nire izaerarengatik, gaur egun kantaldi bakoitzean jaioherri bat bezalakoa naiz, nahiz eta 35 urte diren dagoeneko hasi nintzela. Ez ditut 35 urte horiek ikusten. Niretzako kantaldi bat beti da desafio bat. Lan bat egina dut, esperientzia badut, hori hor dago baina kantaldi bakoitzean, nere bokazioa, nere intentzioa, nere jarrera, lehendabiziko kantaldian bezalakoa da. Hori azkenean transmititu egiten da. Hori horrela izan da beti. Nik hehin ere ez dut gogo txarrez kantatu. Nire kantaldian egon den jendeak beti, modu hatera edo bestera hori hartu behar izan du.

**"Kantagi ntzak gauza askotaz h ausnartzeko aukera ematen dit .**



# Emakumeak

## ERASOTZAILE SEXUALEN HELBURUA

*Tantalez, emakumeek jasaten dituzten tratu txarrak eta eraso sexualak notizia baino, ohizko bilturto dira azken dian. Baina Virginia Acebes 19 urteko ikasle bilbotarraren moduko hilketa anker eta bihotzgabeak gertatzen direnean alarma pizten da gizartean. Izan ere, emakumeak emakume izateagatik bakarrik daude arriskuan. Ez pentsa gainera urrutiko kontuak direnik. 21 urteko gazte elgoibartar bati 6 hilabete-tako gartzela zigorra ezarri berri diote neska bat sexualki erasotzeagatik. Gazteek arazo honi buruz duten iritzia jakin nahian Miren Larrañagarekin hitz egin dugu, biktima potentziala izateaz gain (Emakume guztiak dira), berak Bilbon ikasten baitu eta Virginia Acebesen heriotza Bizkaiko hiriburan bertan izan zen.*

**Miren Larrañaga**



11 Nola bizi izan da Virginia Acebesen hilketa Bilbon?

Bere hilketa salatzeke in zian kontzentzietan jende tnorduak hartu zaban parte, gai honek emakume danok ikutzen gaitxu-eta. Hala ere, mutil asko zaozen tartian. Dana dela, Virginia Acebesek Sarrikon ikasten zaban eta nik, berriz, Deuston. Hori dala-eta, ez dot oso gertutik jarraitxu kasu hau, baina klaseko lagunei entzundakuan arabera, bildurra da nagusi. Gurasuak seme-alabak jasotzera juten dia eta tren estazioetan ere itxaiten diete.

Horrelako hilketa batek zer pentsatua ematen du, ezta?

Bai, eta tamalez ez da kasu bakarra, denbora tarte laburrian antzeko hilketa asko gertatu dia-eta. Holakuak pasatzen dianian nora ote guazen galdetzen diot nere buruari.

11 Horrelako pertsonak libre daude zela jakiteak beldurrik ematen al dizu?

Berez errez beldurtzen naizenetakua naiz, eta holako hilketen berri entzun eta gero, arrazoi gehixokin. Segun eta zer ordutan bakarrik ibiltziak errespetua ematen dia.

11 Erasotze sexualak urrutiko kontuak zirela iruditzen al zitzaizun orain arte?

Bai hala da, lehen holako arazuak Ameriketara-eta bakarrik pasatzen ziala uste gendun. Oin, aldiz, Bilbon eta Donostian ere gertatzen dia eta ixa normaltzat jotzen ditzugu zoritxarrez.

Ba al zenekien Elgoibarko gazte bati 6 hilabete-tako gartzela zigorra ezarri diotela eraso sexual bateagatik? Ez, ez nakan idearik ere. Ikusten danez inon ez gaude seguru, ezta Elgoibar moduko heni txiki batian ere. Hala ere, gogorra itxen jata puntu honetaraingo heldu gerala ikustia.

11 Legeak emakumeak behar beste babesten dituela uste al duzu?

Legiak bigunegixak dia eta behin baino gehixotan entzuten da kartzelatik urten dian erasotzailiek berriz ere delituak in ditzutela. Bakoitzak in dabana ordaindu bihar dau. Legiak gogortuz igual gehixo bildurtuko dia.

11 Zergatik uste duzu eraso asko ez direla salatzen? Beldurragatik dala uste dot, baina salatu biharko liakela iruditzen jata.

E Etxean gurasoak arduratuago agertzen al dira?

Beti esaten die kontuz ibiltzeko, baina holakuetan oindik gehixo. Nere ahizpa gaztiak ere, Bilbora ikastera juten naizenian kontuz ibiltzeko esaten dia, nahiz eta egunez juten naizen.

11 Zer esango zenioke erasotzaile sexual bati?

Esan ezer ere ez, zaplasteko bat jo edo `zerbair moztuko nioke. Hortan gizon normalak ere emakumiokin bat datozela uste dot.

11 Gaur egungo gizartean emakumea izatea ez da batere erraza. Gizona izanda ere zaila da aurrera ateratzia, baina emakumiok zailua dakagula uste dot. Asko aurreratu dou, baina lan asko falta da itxeko. Hori bai, edozer egiteko ongi prestatuta gaude.



## INTERESEKO

### OSASUNA

Anbulategia:

Larrialdiak . . . 943 461111  
Txanda hartzeko . 943 743354  
Planning-a ..... 943 742950  
Alkonoike Anonimoak . 943740385  
D.Y.A (anbulantzia) . 943 464622  
Gurutze Gorria . . 943 743864  
Merearoko Ospaailea.. 943 032800  
Odol Ernaileak . 943 743936

### GARBAIOAK

Eusko Trenbideak . . 943 740442  
PESA (Eibar) . 902 10 12 10  
Taxi geltokia . . . 943 740898

### UDALA

Euskara Zerbitzua. 943 744366  
Udal Kirol Patronatua.. 943 744415  
Kultura Zerbitzua.. 943 742158  
Mendaroko Udala... 943 756100  
Ongizate zerbitzua..... 943741008  
Udaletxea ..... 943 741050  
Udaltzaingoa. 943 741394

### BESTELAKOAK

Elgotharko Izarra . . . 943 741626  
Kiroldegia ..... 943 744415  
Kontsumo Bulegoa . . . 943 743088  
Liburutegia ..... 943 743525  
Musika Eskola . 943 742145  
Mintxeta ..... 943 744315  
Parrokia ..... 943 740842  
Postetxea ..... 943 741547  
Gaztetxea ..... 943 743572

### AD1NEKOEN ETXEAK

San Lazaro Egoitza.. 943 740296  
Zaharren Biltokia . 943 740526

### IKASTETXEAK

Haur Eskola .. 943 74 21 41  
HHI (EPA) . 943 74 08 80  
Herri Eskola 943 74 08 79  
I.M.H. .... 943 74 41 32  
Herri Institutua  
Arreiturre .. 943 74 02 67  
Ezenarro (Meka). 943 74 80 19  
Ikastola ..... 943 74 44 41  
PhillStetxea.... 943 74 13 31

### 9111 KOMUNIKABIDEAK

BARREN..... 943 74 41 12  
El Diario Vasco 943 74 40 73  
El Correo Español.. 943 74 10 82  
Zazpiki irratia 943 74 34 74

## 3 ostirala

19:30 MARGO

### ERAKUSKETA

Luzianoren eta Miguel Ruiz-  
Povedaren margoak  
Kultur Etxean  
Abenduaren 19ra arte

21:30 ZINE FORUM-A

"Frida y Camila"

Hizlaria: Eskarne Larrinaga  
Antolatzailea: Haizea E.T.

22:15 ZINEA

"American pie"

22:30 MAIXA eta IXIAR-en  
KONTZERTUA

Oraiko tabernan

00:00 BIDEO EMANALDIA

Gaia: Txiapas

Gaztetxean

## 4 larunbata

9:00 MENDAROKO

### KONTZESIO AZOKA

Frontoi inguruan

12:00 ZAZPIKIren

### BATZARRA

Ganbaran

16:30 KINA

Jubilatuen etxean

19:30-22:15 ZINEA

"American pie"

## 5 igandea

12:30 HILDAKO

### JUBILATUEN

### OMENEZKO MEZA

San Bartolome Parrokian

16:30 ZINEA

"El inspector Gadget"

18:00 ZINEA

### GAZTETXEAN

Laburmetrajeak

18:00 GELATX0ren

### DANTZALDIA

Jubilatuen etxean

19:30-22:15 ZINEA

"American pie"

## astelehena

19:30-22:15 ZINEA

"American pie"

## 7 asteartea

22:15 ZINEA

"Carta de amor"

## 8 asteazkena

16:30 ZINEA

"El inspector Gadget"

19:30-22:15 ZINEA

"Carta de amor"

## 9 osteguna

21:30 ZINE KLUBA

"Cuando vuelvas a mi lado"

## 10 ostirala

22:15 ZINE KLUBA

"Cuando vuelvas a mi lado"

22:30 KAFE USAINEAN

Gabi Agirregomezkorta, Joseba  
Alonso, Aitor Badiola, Jon  
Gurrutxaga eta Silbia Hernandez  
Kultur Etxeko Sotoan  
Antolatzailea:  
Elgoibarko Izarra K.E.

## 11 larunbata

[RRATI LIBREEN EGUNA

Gaztetxean egun guztian

16:00 REIKI IKASTAROA

Surya belardendan

19:30-22:15 ZINEA

"La hija del generar

## 11 NE A



Zuzendaria: Pan1 Weitz.  
Antzezleak: Jason Biggs, Shannon  
Elizabeth, Alyson Hannigan.

### American pie

Komedia honetako protagonistak Bigarren hezkuntzako ikasle batzuk dira. Lagun talde bateko gazteek graduazio eguneko jaia baino lehen birjinitatea galtzeko elkar hartu dute. Dena den, laster ohartuko dira beraien asrnoa ez dela usate zuten bezain erraza. Hala ere, beraien buruak hobeto ezagutzeko balioko die birjinitatea galtzeko asmoz hasitako bilaketak.

zffis

azzaari az az az



## igandea

19:00 ZINEA  
GAZTETXEAN  
"Fargo"

19:30-22:15 ZINEA  
"La hija del general"

## asteleena

12:30 IX. NAZIOARTEKO  
XAKE TXAPELKETA  
Aren AURKEZPENA  
Kultur Etxean  
Antolatzaileak:  
Zubi-Ondo Elkarte, Euskal  
Xake Federazioa eta Udal  
Kirol Patronatua

22:15 ZINEA  
"La hija del general"

## 1G osteguna

21:30 ZINE KLUBA  
"Un plan seneillo"

## 17 ostirala

22:30 BERTSO JAIALDIA  
A. Egaña, S. Lizaso, M.Lujanbio eta J.M. Irazu.  
Herriko Antzokian  
Antotatzailea:  
Elgoibarko Izarra

### • Bgelharko musimak arituko dira liafe Usainean' egitasmoaren burrunge emanaldian

Elgoibarko Izarrak antolatzen duen 'Kafe Usainean' egitasmoaren emanaldi berri bat izango da hurrengo ostiralean, abenduaren 10ean. Oraingo honetan beste musiko batzuk osatutako taldeak joko du, Gabi AghTegomezkortak (gitarra), Joseba Alonsok (ahoko soinua), Aitor Badiolak (gitarra eta ahotsa) eta Jon Gurrutxagak (perkusioa eta ahotsa) hain zuzen. Horrez gain, Silbia Hernandezek piano pieza batzuk joko ditu. Musika ikuskizunaz gain, kafea, pastak eta kopatxo bat dastatzeko aukera egongo da 500 pezetaren truke. Saioa gaueko 22:30ean hasiko da.

### • Bertso jaialdia abenduaren 17an

Urtero bezala, Gabonen bueltan Elgoibarko Izarrak bertso jaialdia antolatu du. Aurten piska bat Iehentxoago izango da hala ere, abenduaren 17an hain zuzen ere, gaueko 22:30ean Herriko Antzokian. Parte hartuko duten bertsolariak Sebastian Lizaso, Andoni Egaña, Maialen Lujanbio eta Jesus Mari Irazu izango dira,

### • Maixa eta bdarren kontzertua Oraiko tahernan, gaur osttrala

Maixa eta Ixiarrek kontzertua emango dute gaur, abenduak 3 Oraiko tabernan, gaueko 22:30eart, Trikitilari hauen zaleak direnek ezingo dute taldea zuzenean ikusteko aukera hau galdu, izan ere, urte amaitzean banandu egingo direla iragarri dute. Agur esan aurretik kontzertu batzuk eskainiko dituzte eta horietako bat Elgoibarren izango da. Beraz, *Maixa eta Ixiarrek ja* rraitzaileek huts egin ezinezko zita daukate gaur gauean.

### • Bideo eta laburmetraje emanakia Gaztetxean

Gaur, abenduaren 3an, Txiapaseko egoera dela-eta, Mexikoko unibertsitateetan gertatzen ari diren greba eta okupazioei buruzko bideoa izango da Gaztetxean, gaueko 00:00etan. Igandean, berriz, ohi bezala luzemetraje bat eman ordez, hainbat laburmetraje ikusteko aukera egongo da Gaztetxeko zine emanaldian. Denetariko laburmetrajeak ikusi ahal izango dira arratsaldeko 18:00etatik aurrera, tartean Mex De 1a Iglesiaren "Mirindas asesinas" edota "La madre". Minutu gutxi batzuk irauten duten artelan hauek ezagutu nahi dituenak Gaztetxera jo dezake, beraz.

### • Reiki ikastaroa

Datorren ostiralean, abenduaren 10ean, produktu biologikoak dastatu ahal izango dira Surya belardendan, King-Kong tabernaren alboan, goizeko 10:30ean. Era berean *Surya* belardendak, ere, Reiki ikastaroa antolatu du. Ikastaroak 2. maila irakatsiko du eta larunbatean abenduaren 11n, arratsaldeko 16:00etatik 20:00etara eta igandean, hilaren 12an, goizeko 12:00etatik 14:00etara izango da.

### FARMAZIAK

	Egunez	Gauetz
4	Yudego*	Escala
5	Yudego*	Escala
6	Etxeberria	Etxeberria (Errosario kalean)
7	Etxeberria	Etxeberria (Santa Ana kalean)
8	Etxeberria	Etxeberria (Santa Ana kalean)
9	Yudego	Yudego
10	Zabaleta	Zabaleta
11	Etxeberria	Etxeberria (Errosario kalean)
12	Etxeberria	Etxeberria (Errosario kalean)
13	Escala	Escala
14	Bidasolo	Bidasolo
15	Etxeberria	Etxeberria (Santa Ana kalean)
16	Fernandez	Fernandez
17	Yudego	Yudego *(eguerdiko 2ak arte)

ESCALA: Rekalde, 1  
Soraluze. Tel: 943 75 16 38  
J. IGNACIO FERNANDEZ  
Herriko enparantza 4,  
Garagarza. Tel: 943 75 61 42  
ZABALETA: Kalebarren, 9  
Soraluze. Tel: 943 75 13 84

### OKINDEGIA

5 igandea Doña Mercedes  
6 igandea Eizagirre  
8 igandea Fotero  
12 igandea Zabaleta

I-s 17311  
za ?-.5

i ozq  
p...l

4-11

10<sup>1</sup> CP  
ta<sup>4</sup>  
0.4

C I'sso til:  
Zuzendaria: Gracia Kerejeta  
Antzezleak: Mercedes Sampietro,  
Adriana Ozores, Jorge Perugorria,

### Quando vuelvas a mi lado

Gloriak, Anak eta Lidiak Galiziara bidaia egin dute beraien ama hil egin dela-eta. Hiru aizpa hauen bidaia fisiko hau, era berean, haurtzarora egindako bidaia da, 50eko hamarkadara, familiaren gorabeheretara eta gurasoen maitasun kontuetara. Drarm intimista honek 1999ko Donostiako Zinemaldian Epaimahaiaren Aipamen berezia eta Argazki Onenaren Saria jaso zituen.

11 1111 111R - - - - - 111 11 - - RI - - - - -

## Lana

### .EsKaintza.

• Neska euskalduna behar da arratsaldez ume bat zaintzeko. 17 943 74 37 97 (20:00etatik aurrera deitu)

• Goizez bi ume zaintzeko emakutne euskalduna behar da. tr 943 74 10 57

• Elgoibarko enpresa batek informatika teknikaria behar du. 2r 943 74 08 50. Fasa: 943 74 29 16

.25 eta 35 urte bitartekoa janari banatzailea behar da. Gidatzeko karneta izatea beharrezkoa da. tr 943 74 46 63 (21:00-22:00 deitu)

• Emakutne edadetu zaintzeko pertsona behar da. it 943 74 03 70

• Tabernarako neska behar da larunbatetan lan egiteko. tr 943 74 37 71

#### • ESICAERA •

• Neska eskaintzen da goizez lan egiteko. 7r 943 74 29 73 (Andone. Goizez deitu)

• Erizain laguntzaile diplomatua eskaintzen da nagusiak eta gaixoak zaintzeko. Auto handia daukat. tr 609 77 01 33 (Asis)

• Erizaintzan diplomatutako neska euskalduna eskaintzen da pertsona gaixo eta edadetuak zaintzeko, Etxean edo eta ospitalean. Gaez nahiz egunez. tr 943 74 27 78 (Itziar)

Neska gaztea eskaintzen da erropadendan edo lurrindegian hin egiteko, Esperientziarekin. s. 696 67 78 80 (Estibaliz)

• Etxeko lanak eta garhiketak egiteko emakumea eskaintzen da. z. 609 52 68 69

## Ebiebizitzak



• Ilepaindegia alokatzen da Mendaron. m2 943 75 50 73.

• Auzoko taberna alokatzen da traspasorik gabe.e. 649 60 46 66 (19:00etatik aurrera deitu)

• Etxea salgai Muguntza kalean. tr 943 85 08 92

• Pisua behar dugu alokairuan. Txikia eta ahal izanez gero altzariekin. tr 943 74 30 67 ( 13:30 etik 5:30era bitartean)

• Pisu txikia alokatuko nuke. tr 943 74 04 86

• Lokala saltzen da Donosti kalea, 10 zenbakian, Alizolan. 75m2 ditu. .2r 943 74 39 91

### OHARRA:

Merkatu txikirako oharrak asteazken eguerdia baino lehenago ekarri behar direla gogorarazten dizuegu.

## Garajeak

• Marradun garajea saltzen da pista belmean. m. 943 74 00 89 (astegunetan eta 21:00etatik aurrera deitu)

• Garaje itxia hartuko nuke alokairuan Arregitorren. tr 943 74 15 16

## Bestelakoak

• Udaletxean erosketetako karro bat agertu da. Galdu duenak berlara joan daiteke hila.

• Umearen txamarra galdu dut Leku Ederren. Zuria eta berdea da. it 943 74 27 89 (Mari Carmen)

• Urrezko pultsera galdu dut. Plakan Edurne izena dauka idatzita. 2: 943 74 08 61

♦ Caritasek etxe txikirako altzari txikiak behar ditu. IT 943 74 15 09

• 2 eraztun galdu ditut: batek brillante bat dauka eta besteak E iniziala. Santa Klaratik King-Kongearako bidean. tr 943 74 13 97

• Etxean ingelesa ikasi nahi baduzu deitu 943 74 36 89 telebitorra, informatuko zaitugu.

• Forro polar urdina galdu nuen hilaren 15ean Mintxetan. Taila txikia da. a 943 74 19 57 (Antton)

• Kortina, kuxin, apal, maindire, oihal etab. oso gustura hartuko genituzke. .Irt- 943 74 35 72 Gazte Asariblada

• Salsa, Merengue eta Cha Cha Cha ikastaroen larunbatetan Arlen, dantza irakasle kuhatarrekin. Interesatuak deitu 630 830 222 telefonora.

IlViarshall anplifikagailu bat (100W-koa), Iñañez SG/541 kitarra eta oraindik estreinaat gabeko ahots mahai bat saltzen ditut. 2r 943 74 49 87

## Salerosketak

• Fiat Tipo 1.8 salgai. 110 zaldi eta 68.000 Km. te 943 75 50 86 (Asier)

• Labadora salgai. Oso egoera onean. s 943 74 39 75 (Arrate. 19:30etik aurreril deitu)

• Renault Clio 1.9 diesela salgai. SS-AN. 68.000 Km. Precio onean. tr 943 58 40 39

• polo GTI SS-AJ autoa salgai. 106.000 Km. tr 943 74 15 19 (Eguerdian deitu)

♦ Opel Kadett GSI salgai tr 606 43 80 67

• Silver Cross kapotadun kotxea eta silla salgai. Egoera onen. Osagaiak oparitzen dira. tr 943 74 37 82 (19:00 etatik aurrera deitu)

• Seat Marbella SS-AV salgai. 25.000 Km. Egoera onean. m. 943 74 29 69

• Honda Civic 1,51 salgai. Oso egoera onean. tt 656 72 36 76

• 5 urteko neskatokarentzat haserri-tar soinekoa en)siko nuke. m. 943 74 29 27

## Partikularrak

♦ Dibujoteknikoko klaseak ematen dira. tr 943 74 43 98

• Dihujoteknikoko klaseak emateko pertsona behar da. s. 943 74 07 47 (Nerea)

• Unibensitari talde bat Mendaroko ikastolako haurrei eta ESoko ikasleei laguntza klaseak emateko prest dago. Precio merkeak. talde murriztak eta arreta herezia. tr 943 75 61 70 (Alaitz) Is 943 75 61 90 (Zionza)

## Agurak

• Aupa Melany! Zorionak 11 uile bete dituzulako. Zure look benia oso polita da. Itxasoren. Zepelinoren eta Ambrosioren partez.

• Zorionak Nora Unzuetari, abenduaren 2an. 14 urte bete zituelako. Lagunen partez.

• Zorionak Mari Carmen, abenduaren 9an, urteak beteko zituelako. Familiaren eta bereziki Andrearen eta Ileniaren partez. Ondo pasa eguna.

• Zorionak Ainhoa Usabigari, hilaren 4an, uneak beteko zituelako. Zorionak baita ere aitzitza Ziprianori, abenduaren 9an, bere urtebetetze eguna duelako, Familiaren partez.



• Zorionak Antaia Astigarragari, azaroaren 29im, n une hete zituelako. Gurasoen eta bere ahizpa Olatzen partez.



• Zorionak Aitor Goikoetseari, gaur, attenduak 3, 7 urte hete dituelako, Muxu handi bat familiakoan eta bereziki lbonen partez.



• Zorionak Begottari, abenduaren 6an, urteak betekodituelako. Oseien eta Angele partez.



• Zorionak Anen, hihuren San. 4 urte beteko dituelako. Familiaren eta bereziki bere lehen-gusuen partez.



• Zorionak Haritz Iriondori, abenduaren 4an, 13 urteheteko zituelako. Familiaren eta araba Iratxeren partez.




• Zorionak Hodei Lemosi, azaroaren 26an, 3 urte hete zituelako. Familiaren partez.



• Zorionak Urtzin, azaroaren 29an, 5 urte bete zituelako. Gurasoen eta bereziki Andoniren partez.



• Zorionak Juleni, azaroaren 18an, 6 urte hete zituelako. Itsasneren, Maitaneren eta Alasneren partez.



# V. Kontzezio Azoka



# Enriz Mendaron



# V, o

# io Azoka 4411 Mendaron



# V, Kontzezio Azoka

# Mendaron



# V. Kontze




# men aron



# V,



ABENDUAK 4, ZAPATUA  
Goi zeko 9:00etatik 14:00etara  
**FRONTOI INGURUAN**





# V. argazki lehiaketa



GAIA: Mendia  
ANURRIA: Librea  
2ko loreetan nahiz zuri-beltzean  
argazki gehienez  
Elgoibartarrel eta Morkaiko  
M.E.ko bazkideei  
(Elgoibarkoa ez bada) zuzendutako  
lehiaketa.  
Argazkiak aurkezteko epea:  
Abenduak 17, ostirala (Morkaikon)

## **OHARRAK:**

Argazkien ataldean non eta noiz ateratakoak diren jarri behar da.  
Argazki guztiak erakusketa egingo da Kultur Etxeko erakusgelan abenduaren